



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Asteartea  
2008-10-14

VIURTEA 1.533 ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## Orfeoiaren 10. urteurrena ospatuko dute 'El caserio' lana taularatzuz

**TOLOSA** 9 urte eta gero berriro ere Guridiren zartzuela ikusteko aukera izango da larunbatean Leidorren

**ENTSEGU NAGUSIA** Piztu den ikusmina dela-eta ostiralean egingo duten entsegura joateko aukera ere izango da



El caserio laneko protagonistak atzo Donostian egin zuten prentsaurrekoan. E. EZEIZA



I. TERRADILLOS

**GARBIÑE BIURRUN** EPAILEA

«Herriari galdetzea ezinbesteko oinarria da demokrazia batean»

**TOLOSA** Elkarrizketa digitalean irakurleen galderak erantzun zituen zuzenean 2-3



Ikurrina Leitzako udaletxean jarri zuten, Hispanitate egunean. A. IMAZ

## GORRI, ZURI ETA BERDE UDALETXEKO KOLOREAK

**LEITZA** Hispanitatearen egunean ikurrina jarri zuen ezker abertzaleak 4



Ametza Taberna (Amezketza)  
Inaugurazio ekitaldia  
gaur, asteartea, 19:00etan.  
GONBIDATUTA ZAIDETE!

**E Elkarrizketa digitala** info**GARBIÑE BIURRUN** » Epailea

# «Herriari galdetzea ezinbesteko oinarria da»

**Tolosa** » Irakurleen galderak erantzun zituen zuzenean epaile tolosarrak Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren egoitzatik.

**ERREDAKZIOA**

Garbiñe Biurrun (Tolosa, 1960) epailea HITZAN izan zen pasa den ostiralean, zuzenean webguneko bisitariak elkarrizketa digitalerako bidalitako galderak erantzuten. Hauek dira horietarikoz batzuk: **Maiz ikusten zaitugu herriko kaleetan edo tabernetan bizkarzainekin. Benetan arriskuan ikusten duzu zure bizia ala inposatu egiten dizute bizkarzaina eramatea? Ohartzeko zara gainontzeko herri-tarrei bizkarzain armatuak aldamenen eduki beharrak sortzen dien ondoezaz? Zure bizia arriskuan ikusiko zenuke bizkarzainik gabe? (Luix)**

Ez dago kargurik inoren bisitza arriskuan jarri beharko lukeenik, ezta nire karguak ere. Ez dakit nola sentitzen den jendea nire edo beste inoren bizkarzain armatuen presentziarekin, baina, azkenean, hori ere, zalantzarik gabe, ETAK inposatzen duen indarkeriaren eta injustiziaren beste ondorio bat da. Beste sentimenduak nire intimitatean gordetzen ditut, baina inorrek ez dit inposatu bizkarzainik eramatera. Objektiboki aztertuta, euskal herritar asko ETAREN mehatxupean bizi dira eta oraindik ere mehatxu horiek gauzatzen dira.

**Abokatu bat nahiko nuke separatzeko nora joan naiteke, epaitegian dohainiko justiziaren paperrak bete ditut. (Marian)**

Bete badituzu paperak, Epaitegian esango dizute zer egin behar du-

zun; beraz, Epaitegira itzuli beharko zenuke.

**Zein da zure benetako lana? zer da zehazki egiten duzuna?**

Nire benetako lana Justizia Administrazio barruan, une honetan, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salan egiten dut. Laburki esanda, hiru lurralde-erako Lan Epaitegiek emandako epaien aurkako errekursoak ebazten ditut beste epai baten bitartez.

**Eguerdian Garbiñe: pozten naiz zu HITZAn egoteaz. «Protocolo Garzon, torturak ekiditeko» dela esaten da. Horrek aldatu (ko) du atxilotu eta atxilotzen dituzten pertsonen egoera inkomunikatuta daudenean? Lore**

Estatuak bermatu behar du atxilotetara ez direla ez torturarik, ez tratatu txarrik gertatuko. Garzon-en ekimena aurrepauso bat da, baina ez da nahikoa izango baldin eta: a) ez bada Legedia aldatzen: atxilotetaren denbora murriztuz, abokatua aukeratzeko atxilotuen eskubidea bermatuz, Mediki Forensean presentzia jarraitua arautuz... b) ez bada Estatuaren hainbat agintarien mentalitatea aldatzen: delituen aurka egiterakoan denak ez du balio, mugak dardela onartu behar da: pertsona guztien funtsezko eskubideak errespetua. c) behin torturak edo tratatu txarrak salatuz gero, orain arte Estatuak eman duen erantzuna aldatzen ez bada: hau da, ikerketa serioa, Fiskalaren lana eta, ba-



LITERRADILLOS

tez ere, zigorrak bete araztea indulturik gabe.

**Nolakoa da zure egun bat?**

Nire egunak oso normalak dira. Goiz jeikitzen naiz eta, gehienetan Bilbora noa lanera, tarteka Donostiako ETBren egoitzatik pasa eta gero pare bat tertulian partehartzeko. Arratsaldeetan berriz lana daukat, Unibertsitatean, eta, astean behin, ETBko Pasalo tertulian agertzen naiz. Oso lanpetuta, beraz, baina oso bizimodu arrunta, nahiz eta nire mugimenduak bizkarzainekin egin behar ditudan. Gutxitan nabil kalean.

**Askotan ikusten zaitugu komunikabideetan. Nola konpajinatzen duzu zure lana telebistarekin?**

Denbora aldetik ez daukat bi iharduera horiek konpajinatzeko arazorik, arratsaldeetan Auzitegiantz lanik ez baitut, eta, gainera, ETBkoa astean behin da. Hilean behin edo Kalakan hartzen dut parte, baina hori gauzez denez, loari kentzen diot denbora. Beste kontu bat da nola konpajinatzen duan nire epaile lana komunikabideetan nire iritziak ematearekin. Epaile gehienek ez dute euren iritzia azaldu nahi, baina nik uste dut komenigarria dela. Justiziaz eta orokorrean beste hainbat arazori buruzko hainbata iritzi plazaratzea.

**Zer da Tolosak duen onena?**

Tolosan jaio eta hemen bizi izan naiz nire bizitza osoan. Beraz, argi dago niretzat Tolosak baduela onik. Niretzat garrantzitsua da inguratzeko nauen eguneroko giza

paisaia - oraingo jendea, garai batekoak, jendeak sortutako musika... - ezaguna izatea. Tolosak hori eskeintzen dit niri, baina beste inon bizitzeko arazorik ez nuke izango. Beti esan dut Tolosa desagertuko balitz, edozein tokitan bizitzea berdina izango litzaidakeela.

**Gustura al zaudete Tolosako Udalen daraman politikarekin?**

Oso galdera zabal da, baina guztiz oinarritzekoak jotzen ditudan bi arlotan erantzunago dizut: a) etxebizitzita: nire iritziz orain arte eraman dako politikak ez diola erantzuten herritarren arazoari: oraindik babestutako etxebizitzita gutxi eraiki da; ekimen pribatuak indar handia izan du; alde zahararen zaharberritzea ez da bultzatzen; hutsik dauden etxebizitzak merkatura ateratzeko ahalegin gutxi egin da. b) Genero berdintasuna: oraindik guztiz «matxistak» diren elkarteek babes osoa jasotzen ari dira Udalaren aldetik eta orain hila bate batzuk onartutako Berdintasunari buruzko Ordenantzak ez du hori zuzendu. Instituzio Publikoek ezin dituzte babestu herritarren zati bat baztertzeko eta diskriminatzen duten talde horiek.

**Duela gutxi beste emakume bat hil du genero indarkeriak. Justiziak nola babesten ditu emakumeak?**

Egia da Justizia Administrazioak bere akatsak badituela, baina genero indarkeriaren arazoa ez da hori bakarrik. Askori borrokatu behar da arlo guztietan: etxetan, es-

koletan, komunikabideetan... Kultura aldatu behar dugu, Justiziaren erantzuna ahaztu gabe.

**Epaitegiaren aurka bonba jarri zuten ETAK lehengo astean. Zerrren adierazle da hau?**

ETAren intolerantziaren eta herritarren eskubideei dien mespretxuen adierazle. Gatazkak, desadostasunak... beste erabateraz azaldu behar dira, eta ez bonbaz edo hilketaz.

**Justizian sinesten al duzu?**

Zer da Justizia?. Nik sinisten dut pertsona guztien giza eskubideetan: horretan dago Justizia. Justizia Administrazioa nola dagoen antolatuta, nola kudeatzen den eta zer emaitzak ematen dituen... hori niri ere ez zait betegutzen. Justiziaren independentzia da benetako erronka herritarren eskubideak bermatzea, eta garai hauetan independentzia hori benetan zalantzan edo arriskuan ikusten dut.

**Zer esango zenieke Euskal Herriari beldurra pasatzen dela eta ezin duzula esan pentsatzen duzuna esaten duten horiei? Ana**

Adierazpen askatasuna funtsezko giza eskubidea da. Egia da Euskal Herriari bai pertsona gehiegik ez daukate askatasun hori: a) ETAK mehatxuta egiten dituelako eta hil ere bai - ez dago izenik esan beharrik, baina Tolosan eta Tolosako herritarrek ere hil dituzte horri horregatik - b) Estatuak ere murriztu egin du askatasun hori.

**Epaile izateko zentzuzko dira egin behar diren ikasketak? Marian**

Labur esango dizut: a) Zuzenbide Lizentziatura, eta gero b) Oposaketak epaile izateko c) Urte batzuk daramatzaten juristentzat - abokatu... - badago beste bide bat.

**Inoiz damutu al zara emandako epai batetaz? Txomin Artola**

Egia esan, bai; baina hori ere asumitu behar da lanbide honetan. Kasu gehienetan erantzun bat baino gehiago eman dalkioke gatazka edo arazo juridiko bati. Beraz, behin baino gehiagotan erantzun okerra eman dut, nahiz eta erantzun zuzena zela pentsatuz. Hala ere, ezinbestekoa da lan hau, beste edozein lan bezala, zintzotasunez egin behar dela.

**Epaile izateko aukeratu duzu, baina pertsona publiko bihurtzearenean, zuk hautatu al duzu ere? Zer moduz daramazu hori? Ainhoa**

Pertsona publikoak ez da iazera bat, behin-behineko egoera edo zirkunstantzia bat baizik. Zirkunstantziak ateratzea oso erraza da adibide oso daude. Normaltasunez daramat eta, orain arte, horrek ez du ezertan nire bizimodua baldintzatzen.

**Telebistako debaiteetan eta irudizko zaitzuen zaitzuen zure diskurtsoa ezkeriarra eta abertzalea dela. Hala al da? Zergatik al daketa hori? Irupe**

Ez dut uste aldatu naizenik. Beti ibili naiz ezkerrean eta arazo sozia-

BERRIAREN edizio digitalaren diseinatzeko/programatzeko lanpostua betetzeko pertsona bat behar da. (Enref. 200810 EH-DP)

**Horako etaugarri hauek bete behar ditu:**

- Ezinbestekoa da HTML, PHP eta MySQL programazio lenguaiaekin eskarmentu izatea.
- XHTML eta CSSrekin marrazteko esperientzia izatea.
- Photoshop eta Flash programak ezagutzea.

**Eskarmentuak:**

- 12 hilabeteko kontratua lizua dutekei.
- Lanari berehalako hasiera izango du.

Bidali curriculuma [gb@berria.info](mailto:gb@berria.info) helbide elektronikora, erreferentzia zehatzaz, irailaren 22a baino lehen.

lakbetidanik aztertu ditutikuspegi beretik. Nire abertzaletasunaz, zer esango dizut. Ez naiz nazionalista, eta gainera ez zait iruditzen hainbat balore defendatzeko nazionalista izan behar denik. Abertzalea naiz, bai, herritarren alde eta, batez ere, askatasuna eta berdintasunaren alde nagoelako. Horretan ere ez zait iruditzen aldatu naizenik.

**Epaile on batek zein ezaugarri izan behar ditu? Miren**

a) sinistu behar da botere publikoek, justizia, beraz, barne, egoerasoziala alda dezaketela askatasunaren eta berdintasunaren alde egin dezaketela... nahiz eta hori askotan deseroso bihurtu. b) edozein lanbidetan behar den zintzotasuna.

**Epailearen ideologiak ez luke epaian eragina izan behar, baina herritarren bestelako inpresioa da nagusi. Zure inguruen nola nabaritzen duzu egoera hori? Lan arloan aritu arren, ideologia politikoak ere eragiten ditu?**

Epaileen ideologia beti egongo da ebazpenen oinarrian, baina ideologiak ez du inolaz ere ebazpenaren arrazoi bakarra edo nagusia. Gertatzen dena da arau juridikoak interpretatzerakoan faktore asko eduki behar direla kontuan; horietako bat, adibidez, arauaren helburua, gizartearen beharra... Horren arabera, ideologiak badu bere tokitxoa. Beste gauza bat da ideologia hori partiduko ideologia izatea edota agintearena, hau da, independentzia ezabatzen edo, behintzat, baldintzatzen duen ideologi bida.

**Gaitzespenak egiteko oso zalea zara; baina noiz gaitzetsiko duzu Espainiako estatuak herri honi inposaturiko indarkeria? Ekain**

Beste hainbat herritarrek eta taldek egiten duten modura, ni ere saiatzen naiz ezagutzen ditudan giza eskubide guztien urraketa eta zapalkuntza guztiak gaitzesten eta salatzen.

**Legezkoa al da herri galdeketa bat egitea?**

Konstituzio Auzitegiak ezetz esan du. Lehen aipatu dut edozein gatazka edo eztabaida juridiko ebazterakoan erantzun juridikoa bat baino gehiago izaten da. Beraz, KAK bere erantzuna eman du, baina nik uste dut ordenamendu juridikoa beste era batera interpretatzeko hainbat arrazoi juridiko ere bazegoela. Gainera, herriari galdeketa demokratia baten ezinbesteko oinarria da.

## «Giro ona» izan da herrian antolatzen den I. Euskal Jaian

**Anoeta** » 300 lagun inguru izan ziren herri bazkarian; bihar balantzea egiteko bilera egingo dute udaletxean, 19:00etan.

### ERREDAKZIOA

Herenegun egindako Euskal Jaian «giro ona» izan zela azaldu dute Udaletik. Aurrerago antolatzaile lanetan eta parte hartzen aritu direnek balantzea egingo dute eta horretarako deitu dute bilerara bihar, 19:00etan udaletxean.

Igandean ondo joan ziren antolatutako ekintzak. Azokari dagokionez, aurreikusita zeudenak baino lau postu gutxiago izan ziren. Goizetik izan zen haize bortitzak postura eramango zituzten pro-



Jende ugari elkartu zen frontoian bazkari herrikoa egiteko. HITZA

duktuei kalte egingo zielakoan ez ziren joan. Bestalde, herri bazkarian, 300 lagun elkartu ziren eta frontoia gainezka egon zen. Arra-

tsaldeko erromerian ere giro ona izan zen nagusi eta, besteak beste, talogileek egindako talo guztiak saldu zituzten.

## «Oso ondo joan da Jubilatuen Eguna», azaldu dute Udaletik

**Iruia** » Besteak beste, 80 lagun inguru bildu ziren Zaharren Etxean egindako bazkarian.

### ERREDAKZIOA

80 lagun inguru elkartu ziren igandean Iruian Jubilatuen Egunean egindako bazkarian. Ekitaldiak «oso ondo» joan zirela azaldu du Marimi Ugalde alkateak. Bazkariaren aurretik meza nagusia egin zuten eta ondoren dantzariak agurra dantzatu zieten jubilatuei.

Bazkaria Zaharren etxean egin zuten eta esan bezala, 80 lagun inguru elkartu ziren. Bazkaldu eta gero, jubilatuen arteko jokoen sari banaketa egin zuten. Bestalde, urtero bezala, 80 urte egin edo aurten egingo dituztenei opari berezia eman zitzaion. Horren ondoren Joxe Mendizabalek jarritako musika giroarekin dantzaldia izan zen.

## Gorbeira ibilaldia antolatu du Sagainek

**Asteasu** » Hilaren 19an izango da irteera; izena kiroldegian eman behar da eta azken eguna horretarako etzi da.

### ERREDAKZIOA

Sagain mendi taldeak Gorbeira ibilaldia antolatu du hilaren 19rako. Saldropitik igoko dira eta gero Pagomakurrera jaitsiko dira.

Zailtasun maila ertaina da eta bost ordu inguru ibiliko dira.

Autobusa 08:00etan aterako da udaletxe aurretik eta itzulera arratsaldean izango da (ordua zehaztu gabe). Autobusean ordaindu beharrekoa: 12 urtetik berakoek 5 euro eta 12 urtetik gorakoek 10 euro. Izena eman nahi duenak kiroldegian egin dezake eta horretarako azken eguna etzi izango da. Informazio gehiago lortzeko, [www.sagain.org](http://www.sagain.org) helbidean.



Gorbeira joango dira igande honetan Sagain taldekoak. HITZA

## Laburrak

### Kultura batzordeko bilera, gaur balioaitzeko gelan

**AMEZKETA** » Kultura, Gizarte Ongizate eta Ingurumena batzordeak bilera egingo du gaur, 20:30ean, balioaitzeko gelan. Bertan ondorengo gaiak jorratuko dituzte: mozioa, euskal konpromisoa giza eskubideen alde, Euskara Landu (Iraurketa taldea...), aste kulturala eta Landagipuzkoa32 programaren diru laguntza eskaerak (base-rietako bideak).

### Hitzaldia maitasuna eta afektibitateari buruz

**ANOETA** » Aulas Kutxak antolatuta, Alkartasuna Biltokian hitzaldia izango da bihar, 18:30ean. Gaia *Maitasuna eta afektibitate adinekoen artean* izango da eta hizlaria Ana Oiartzun da.

### Idoia Santxezen saioa, gaur Udal Liburutegian

**HERNIALDE** » Bihar Idoia Santxez ipuin kontalaria izango da Hernialden. 17:30ean merienda izango da Udal Liburutegian eta jarraian, 18:30ean, Idoia Santxez ipuin kontalariaren saioa entzun eta ikusi ahalgo da. Ipuin hauek 2 eta 10 urte bitarteko umeentzat zuzendutako daude.

### Hitzaldi-tailerra barreari buruz, etzi, Kultur Etxean

**TOLOSA** » La Escuela dela Risa Inteligentek hitzaldi-tailerra emango du etzi Tolosako Kultur Etxean. *Barre egiten ikastea, bizitzen ikastea* da saioak izango duen izenburua eta 20:00etan hasiko da hitzaldi-tailerra. Sarrera doakoa da.

### Ezohiko osoko bilkura egingo du bihar Udalbatzak

**VILLABONA** » Udalbatzak bihar, 20:00etan, ezohiko osoko bilkura egingo du eta bertan bi gai jorratuko dituzte bertan bildutakoek. Alde batetik, Udalhitz 2008-2010 hitzarmenari atxikitzeko proposamena, eta bestalde, alderdiei buruzko legea berehala indargabetezko eskatuz eta ET Ari indarkeria behin betiko eten dezala exijitzeko IU-EB-Berdeak udal taldeak aurkeztutako mozioa.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle


hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak





## Urbasako taupadekin bat eginez

**IBARRA** ■ Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju mendi taldeak bizikleta irteera antolatuta zuten igandean Urbasara. 15 lagun gerturatu ziren ibilaldira. Behe lainotan, Urederrako ur jauzien magalean, kobazulo barneko lakuaren bihotzean, zuhaitzen gainean, galbidean, amildegiaren azken harkaitzean eta bizikleta gainean, Urbasako taupadekin bat egin zuten. A.I.



«Inposaturiko egunean», Hispanitatearen egunean, ikurrina Udaletxeko balkoian egon zen egun guztian zehar. A.I.

# Leitzako ezker abertzaleak udaletxean ikurrina jarri du «inposaturiko egunean»

**Politika** ■ «Euskal Herriko edo inposaturiko egunetan» ikurrina aterako du udaletxeko balkoira ezker abertzaleak.

### ASIER IMAZ

Hispanitatearen Eguna «Euskal Herriarentzat inposaturiko eguna» dela azaldu du Leitzako ezker abertzaleak. Ondorioz, «antzeko egunetan, lege inposatzaileen gainetik herriaren borondatea eta nahia errespetatu behar direla gogorarazteko, ikurrina udaletxeko balkoian» agertuko dela jakinarazi dute. Bestalde, Euskal Herriarekin lotura duten egunetan gauza bera eragingen omen dute.

### Ikurrina Leitzan

Leitzako Bai Euskal Herriarik azaldu duenez, «1977. urtean hiru egunetarako jarri zuten ikurrina udaletxean. 1979. urtean, Euskal Herriko Aizkolari Txapelketaren baitan, Amnistia eskatzen zuten pankarta batekin batera, ikurrinak bere tokia berreskuratu zuten. 1995. urtean, HBren eta EAren udal ordezkariak 1991n onartutako mozioa bete egin zuten, hau da, karguak hartu bezain laster ikurrinamodu iraunkorrean udaletxeko balkoian jarri zuten. 2005ean, Nafarroako Gobernuak, ikurren inguruko erabakia praktikan jarri zuten, eta garai horretako alkateak, herriari ezer galdetu gabe eta bere erabakiz; 10 urteren ondoren, ikurrina kendu zuten».



Atzo eguerdiko irudia. A. IMAZ



## Eskualdeko alebinak Berazubín

**TOLOSA** ■ Eskualdeko ikastetxeetako ikasleak, alebinak, iragan larunbatean Berazubín elkartu ziren. Bertan, Eskola Kiroletako lehen jardunaldia ospatu zuten. Ikasle alebinek atletismo proba ezberdinak burutu zi-

tuzten jai giroan, izan ere, ikastetxe ezberdinetako haurrak elkartu ziren Tolosan. Lehen jardunaldiaren ondoren, atletismoa atzean utzi eta beste kiroletan lehiatuko dira haurrak. A. IMAZ

## Bidebide Ibizak denboraldiari garaipenarekin ekin dio

**Saskibaloia** » Luzapenean 88-80ko emaitzarekin irabazi zuten tolosarrek Bizkaiko Getxo taldearen aurka.

### ERREDAKZIOA

Izena berriturik, hasiera ezin hobe eman diote denboraldiari Tolosako Bidebide Ibiza taldeko jokalariek. Lehen partida etxean zuten, euren zaletuen aurrean eta ez zuten hutsik egin. Usabalen bildu zirenek neurketa estua ikusi zuten eta, gainera, etxekoek irabazitako 88-80ko emaitzarekin amaitu zen neurketa, luzapenean Bizkaiko Getxo taldearen aurka.

Mailaz igo berri den talde bizkaitarrak maila ona erakutsi zuen eta ez zen samurra suertatu etxekoentzat garaipena lortzea, ederki izerditu behar izan zuten kamiseta. «Kalitate handiko jokalariek zuten talde aurkariak», aitortu zuten Bidebide Ibizakoek.

Etxekoek ondo heldu zioten le-

hen laurdenari eta 9-1-eko partzialarekin aurreratu ziren. Mikelek 7 puntu ia jarraian sartuta taldea markagailuan aupatu zuen; barnealdi bikainak egin zituen gainera.

Bigarren laurdenean, aldiz, kanpotarrak pixkanaka intentsitate igoaz eta erasoko errebotean min handia eginez partidaren bete-betean sartu ziren. Mailara egokitzea minutu batzuetako kontua beste-rikizango ez zela erakutsi zuten.

### Azken minutuetan, tentsioa

Partidaren atsedendialdiaren ostean, beteranoek hartu zituzten ardurak. Goarrek hiruko marratik erakustaldi bikaina egin zuen. Baina ez zen nahikoa izan eta bizkaitarrak markagailuan aurretik jarri ziren, joko erritmoa menderatu arte.

Azken minutuetan tentsioa izan zen nagusi. Fernandok hiruko erabakigarria gauzatu ondoren, tolosarrek defentsako lan bikaina egin eta baloia berreskuratu eta jaurtiketa argia egin arren huts egin zuten. Getxotarrak ez zuten aukera

alde batera utzi eta hiruko batekin partida berdindu zuten. Jimmy-k zuzendutako mutlek azken jaurtiketa egiteko aukera izan zuten baina falta egin zioten Kaiet-i. Kiroldegia mutu gelditu zen 0,8 segundo faltan. Bi jaurtiketa egin behar izan zituen partida irabazteko. Tamalez biak huts egin eta luzapenera joan behar izan zuten.

Orduntxe aldatu ziren gauzak Bidebide Ibiza taldeko jokalarientzat, izan ere, luzapenean, berriz, kanpotarren indarrak hustu egin ziren eta etxekoek partida poltsikoratu zuten 17-9-ko partzialarekin luzapeneko bost minutuetan.

### Datorren bi partidak, etxetik kanpo

Atsenedian ohiko zozketa egin zen eta zenbaki saritua 240a izan zen.

Dudarik gabe etxean erdietsi duten garaipen honek lasaitasuna emango die datozen bi partidak etxetik kanpo jolastu beharko baitituzte.

## Garaipena Laskoraintzat, Andoainen jokaturako derbian

**Areto-fubola** » Euskalduna taldearen aurkako norgehiagoka estua izan zen tolosarrentzat; 3-5eko emaitzarekin amaitu zen.

### ERREDAKZIOA

Ederki sufrituta. Horrela eskuratu zituen pasa den asteburuan Laskoraintek garaipenaren hiru puntuan, Andoaingo Euskalduna taldearen aurkako derbian. Amaierako markagailuan 3-5eko emaitza izan zen.

Talde gogorra zuten aurrez aurre horitxoek, iaz partidarik galdutakoak lortu baitzuten igoera gipuzkoarrek. Norghegiagoka berehala ipini zitzairen maldan gora tolosarrei, 1-0 aurreratu baitziren etxekoak erasoko jokaldi bati bigarren zutoinean bukaera eman eta gero.

Horitxoek bestalde, minutu gehienetan jokoaren ekimena eramanez, berehala egin zuten berdinketa Telleriaren eskutik. Lehengo zatiko aukera gehienak bisitarien oinetatik irtenagatik, 1-1-eko berdinketarekin eten zuten markagailua atsedendialdian.

Bigarren erdian, Alonsoren mutilen joko gehiago gailendu eta Zabala eta Telletxearen golak zirela medio, 1-3-ko emaitza izan zen elektronikora. Minutu luzeak ziren oraindik jokatu beharrekoak.

Baina gogor eutsi zioten abantailari horitxoek. Hala ere, etxekoek berriz ere markagailuan 3-3ko berdinketa jarri zuten, Laskoraintgo mutilen huts egite batzuk zirela medio.

Horitxoek atezaina bikain aritu zen azken minutuetan, bere «gelditu ikusgarriek» balioztatu zituztelarik Barriola eta Camioren ondorengo sareratzak. Atezain gazteak, «19 urte baino ez ditu

laskoraindarrak) 3-5-eko azken emaitza «berak bakarrik eta bere kabuz ahalbidetu» zuten areto-futbol taldeko arduradunen esanetan.

Gogotik sufritutako garaipen hau Javi delegatua, Alonso entrenatzailea, Endika, Amatriain, Saldaia, Barriola, Camio, Telletxea, Zabala, Murgi, Gil, Ekhi, Telleria eta Sanz jokalariek lortu zuten Andoaingo lurraldeetan.

## Bi lagun atxilotu dituzte ustez enpresa batean lapurreta egiteagatik

### ERREDAKZIOA

Herenegun goizaldean Ertzaintzak bi gizona atxilotu zituen Tolosako enpresa batean ustez indarra erabilia lapurtu zutelako.

Hain zuzen ere, ertzaintzak dei bat jaso zuen enpresa batean ustezko lapurreta egiten ari zirela berri emanez. Agenteak Ibaiondo kalera joan ziren, baita Udaltzaingoaren patruila bat ere.

Leiho bateko kristala apurtua zegoen eta agenteak barrura sartu ziren gertatutako konprobatzeko. Ikuskapenean polizia lurrean

etzanda zeuden bi pertsona aurkitu zituzten, lo zeudenaren itxura egiten ari ziren.

Inguruan eta lurrean, billete, txanpon eta irekita zegoen metaluzko kaxa bat zeuden. Horrez gain, ustez, egileek erabilitakoa bihurkin bat ere zegoen.

Agenteek bertan zeuden bi gizona identifikatu eta atxilotu zituzten indarra erabilia lapurreta delitu bat leporatuta. Atxilotuak, B.V.E. y P.D.P., 43 eta 41 urtetakoak, hurrenez hurren, Tolosako Epaitegiaren esku jarriko dituzte.



## Sutea izan da Korreo kalean

**TOLOSA** » Korreo kaleko lokal batean astelehen gauean sortu zen sute batek bizilagunak etxetik aterazi zituen. 04:00ak aldera izutu zen, dirudienek zirkuitulabur batengatik. 05:30ak aldera itzali zuten suhiltzaileek eta ez da zauriturik izan. Bizilagunak beraien etxetara itzuli ahal izan dira. Kalteak sutea sortu den lekoean bakarrik gertatu dira. IMANOLGARCIA

**Pertsona bat behar da Tolosaldeko kafetegi-okindegi baterako  
616 73 28 97  
Bidali zure cv: barmen@hotmail.es**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**PURR & PORR  
de MARIHOTTS**

**DVD berria  
etxeko txikiak  
jolasteko**

**PANPINAK**



**DVDa  
(posterra opari)  
18€**



**Panpina bakoitza  
(txapa opari)  
20€**

Egin eskaria amaitu baino lehen  
902-82 02 01 edo harpidetza@hitza.info  
adierazi harpidetza kodea

**hitza**

# Bederatzi urte eta gero, 'El caserio' zartzuela ikusteko aukera, gurean

**Kultura** » Larunbatean taularatuko dute Guridiren lana, Tolosako Orfeoioek; entsegu nagusia ikusteko aukera ere izango da.

## ESTI EZEIZA

Tolosako Orfeoioak bere 10. urterrena dela eta, Jesus Guridiren *El caserio* lana eskainiko du Leidor antzokian. Emanaldi nagusia larunbatean, 20:30ean izango da, baina lortu duen ikusminari esker, ostiralean, entsegu nagusia ikustera joan ahal izango da jendea.

Atzo eguerdian aurkeztu zuten emanaldia Donostian. Bertan izan ziren, Juan Jose Ocon, Musika zuzendaria; Ignacio Ruiz de Alegria, Tolosako Orfeoioaren zuzendaria; Ana Miranda, Eszena zuzendaria eta Pako Alonso, Tolosako Orfeoioaren lehendakaria eta Jokin Biddart, Tolosako alkatea.

Zartzuclara joateko sarrerak Leidor antzokiko lehiatilan edo internet bidez erosi daitezke. Kutxaren webgunean edo [www.general-tickets.com](http://www.general-tickets.com) helbidean. Sarreraren prezioa 25 eurokoa da. Entsegu orokorra ikusi nahi dutenek berriz 10 euro ordaindu beharko dituzte.

## Guridiren zartzuclara berreskuratzeko aukera

*El caserio*, Jesus Guridiren obra ezagunenetakoa bat da. Guillermo Fernandez Shaw eta Federico Romeroen jatorrizko libretoarekin, hiru ekitaldiko komedia liriko da. 1926an aurkeztu zen zartzuclara komiko hau. Euskal Herrian, Arrigorri herri asmatuan dago kokatua. Ezkutuko interesa eta amodioetan oinarritutako argumentuarekin.

Baserrin baten ondorengotzaren gainean XIX. mende hasieran zeuden ohiturak islatzen ditu. Ho-



'El caserio' zartzuclaren aurkezpen ekitaldian, obrako zenbait une antzestu zituzten protagonistek. E. EZEIZA

rrera, baserriaren jabeak plan bat asmatzen du bere jabetzaren ondorengotza ziurtatzeko. Hain zuzen ere, bere iloben arteko ezkontza, Ana Mari eta Jose Migel (pilotari bizizalea, familia bat osatzea baino gehiago bere karrerarekin jarraitzea nahi du). Amaia Arberasek beteko du Ana Mariren papeira, eta Andeka Gorrotxategik, Joxe Migelena. Aktoreekin batera, taula gainean izango dira Iruñeko Concerto orkestra eta Tolosako Orfeoia.

Duela bederatzi urte interpretatu zuten lehendabiziko aldiz Tolosako Orfeoioak *El caserio* obra. Orduan harrakasta handia izan zuten, eta oraingoan erantzun berbera lortzea espero dute. Egun 76 musikari ditu Orfeoioak eta Ignacio Ruiz de Alegriaren esanetan, «oso garai onak bizi ditugu orain». *El Caserio* obraren inguruan aipatu zuten be-

rriz, gehienetan, zartzuclak operak baino maila bajuagoko emanaldi bezala jotzen dituztela, baina argi utzi nahi izan zuten, Tolosako orfeoioek opera onena bailitzan antzestuko dutela Guridiren lana.

Ana Mirandak dihardu eszena zuzendari gisa, eta berak azaldutakoaren arabera, «itxuraz erraza, naturala, eta inprobisatua dirudi zartzuclara honek, baina hori horrela da, atzetik lan handia dagoelako egina». Denera 90 lagunek hartzen dute parte *El caserio*. Duela bederatzi urte ere Miranda izan zen eszena zuzendaria, baina oraingo honetan, egilearen mezuari arreta gehiago jarri nahi izan dio. Hark esaten zuena ulertu, gero transmititu ahal izateko. Bere usutan, egileak obra honekin esan nahi duena da, «maitasunaren eta zoriontasunaren bila ibiltzen garela denak, eta hau aurkitzeko asko-

tan urrutira joaten baldin bagara ere, azkenean, erantzuna ondoan, inguruan daukagula. Horregatik, alborra begiratzea nahikoa da, ez dago urrutira joan beharrik».

Atzo aurkezpenean izan ziren, zuzendari guztiak nabarmendu zuten Tolosako Orfeoioaren kalitate ona. Bat egin zuten esanaz, «maila handiko musikariek osatzen dutela taldea». Orfeoioaren zuzendariak azaldu zuten ere, hamar urte hauetan hainbat eronka gainditu dituztelako, eta aurrera begira ere beste hainbat helburu badituztela.

Tolosako alkateak ere laudorio ugari bota zizkion Tolosako Orfeoioari eta honek, hamar urte hauetan egindako lanari. Bestalde, Tolosak historiar zehar musikarekin izan duen lotura nabarmendu zuten. Adibide gisa aipatu zituen Gorriti, Mokoroa eta Arteta.

## 10 urte lanean, musika zabaltzeko asmoz

**Musika** » Hamargarren urterrena ari da ospatzen aurtan Tolosako Orfeoioa; ibilbide honetan gorabehera ugari izan ditu.

## E. EZEIZA

Tolosako orfeoioa 1998an sortu zen, Leidor operaren estreinaldiaren ondoren. Han parte hartu zuten Eresoinka abesbatzak, Abeslari Lagunak eta Leidor Abesbatzak. Baita Donostiako Mariaren Bihotzeko eta Baionako Errobi abesbatzako kideek ere. Egun arte gorabehera handiak izan ditu partehartzaileei dagoikionean, baina egun, egoera nahiko onean daude.

2006an, Tolosaren 750. urterrena zela eta, emanaldi berezi bat prestatu zuten Orfeoioak. Orduan, hainbat jende inguratu zen bertara eta ordutik, askok, bertan jarraitzen dute. Bultzada handia izan zela ikusirik, Orfeoioarentzat.

Elkarte honek hasiera-hasieratik, musika sinfonikora bideratutako lana egin nahi izan du, alderdi koral guztietan. Era berean, bertako konpositoreen obrak berreskuratzen saiatu da, euskal folklorean ahasztu gabe.

Guridiren *El caserio* zartzuclara Tolosan, Iruñean eta Santanderean eskaini dute orain artean. Zuzendari lanetan aritu izan dira Juan Jose Ocon, Jesus Mari Etxeberria, Inmakulada Saratxaga, En-



Tolosako Orfeoia Leidor aretoko eszenatoki gainean izango da berriro. I.T.

rike Ugarte eta Daniel Montane. Baina hiri hauetan ez ezik, beste hainbat lekutan ere eskaini dituzte emanaldiak Orfeoioek.

Gaur egun 76 abeslari ari dira Orfeoioan eta beste 20 lagun gehiago izango dira ziurrenik, aurrerago.

Tolosako Orfeoioaren sorrera garaieretan, Ainhoa Arteta sopranoak bat egin zuen proiektuarekin eta kontzertu bat eman zuten Leidor antzokian taldea lagundu eta babesteko bere hasieran. Ainhoa Arteta Orfeoio ohorezko bazkidea da.

## Laburrak

### Aparteko Osoko Bilkura egingo du etzi Udalak

**UDALA** » Udalaren Aparteko Osoko Bilkura izango da etzi. 19:30ean udaletxean egingo den bilkuran, ondorengo gai zerrenda aztertuko da. Hasteko, onartzea Lankidetzako akordioa, Tolosako Udalaren eta Naturgas Energia Distribucion, SAren artekoa, gas naturalaren hartune berri bat egiteko sare orokorretik banaketa sarera. Bestetik, 2009. urterako Ordenantza Fisikalen aldatzea onartu edo ez erabakiko da.

### Nafarroa Oinezera joateko aukera, Galtzundirekin

**GIZARTEA** » Igande honetan, hilak 19 Nafarroa Oinez jaialdia ospatuko da Iruñean. Atera ezazu mihia da aurtengo festaren leloa. Urtero bezala, oraingoan ere, Galtzundi Euskara Taldeak autobusak antolatuko ditu hara joateko. Txartelen salneurria hamaika eurokoa da eta Galtzundi Euskara Taldeak Nafarroa Etorbidean duen egoitzan eskura daitezke. Autobusak 09:00ak aldera abiatuko dira Tolosako Tren Geltokitik. Itzulera ordua berriz oraindik zehaztu gabe dago.

## Telefonoak

### Larrialdia. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irrua.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leizta.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

#### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leizta):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

# San Estebango Krosean Cuevas izan da azkarrena, 28 minututan eginez

**Tolosa** » 305 korrikalarik bukatu zuten herenegungo proba, eta antolatzaileek aurten izan den abiadura azpimarratu dute.

## ERREDAKZIOA

Herenegun San Estebango Kultur Astearen baitan klasiko den herri krosa izan zen, eta 305 partaidek bukatu zuten gero eta ezagunagoa den proba. Guztira 311 korrikalarik eman zuten izena: beraz, ez da datu batere txarra. Antolatzaileek, aurtengo edizioan abiadura azpimarratu dute: «Maila handia ikusi dugu abiaduran; azkarrenak 28 minutu behar izan zituen eta bigarrenari 25 segundoko tartea ateradio. Hori maila altu hauetan asko da».

Aurten korrikalaririk azkarrena Asier Cuevas eibartarra izan da, eta bigarrena, berriz, Mohamed Elguarrah tolosarra. Antolatzaileek argitu bezala, «ezin dugu jakin aurreko edizioekin konparatzen marka hobe izan den, distantzia beste bat izan delako (kilometro erdi motzagoa), baina oso denbora

ona da 28 minututan 9 kilometro eta 200 metro egitea». Emakumeetan, berriz, Rosi Talavera betarrena izan zen azkarrena (Hendaia), eta 33 minutu eta 17 segundo behar izan zituen ibilbidea egiteko.

## laz baino partaide gutxiago

Aurten 311 korrikalarik hartu dute parte krosean. «Beste urte batzuetan 400 partaidetik gora ere izan ditugu, baina igandean, krosaz gain, Donostian 3 hondartzetako krosa izan zen, eta hori nabaritu

da. Hala ere, Donostiatik ere hurbildu ziren korrika egitera».

Antolatzaileek Cuevas irabazlearen inguruan izan den pasarte bat gogoratu dute: «3 hondartzetako proba egin behar zuen baina dortsalik gabe gelditu zen. Korrika egin nahi zuen nonbait, eta Tolosan azaldu zen, baina irabazi ere».

## Kultur Astearrekin aurrera

Bihar Kultur Asteari jarraipena emanez, diaporama izango da, Luis Mari Intza erlezainaren zu-

zendaritzapean. Erleen garrantziari eta funtzioari buruz ariko da 20:00etatik aurrera Ferialekuko elkarteak.

Gero eta ezagunagoa den patata-tortilla lehiaketa ere izango da, baina etzi, 19:00etan. Bakoitzak eraman beharko ditu osagaia. Han elkartuko dira, Ferialekuan, eta tortilla guztien usainaz gozatu ahal izango du bertaraten denak. Ondoren, antzerkia izango da, 22:30an, eta patata-tortillak dastatuta.

## » SAN ESTEBANGO XXI. KULTUR ASTEA

### Urriak 15, asteazkena

■ **20:00.** Diaporama: *Erleak gure sendagile*, Luis Mari Intza erlezainaren eskutik.

### Urriak 16, osteguna

■ **19:00.** VI. Patata tortilla lehiaketa. Ondoren, luntxa.  
■ **22:30.** Antzerkia: *SOS terrible* antzezlan Txiflano Inproduccionen antzerki taldearen eskutik.

### Urriak 17, ostirala

■ **16:00.** Altxorraren bila.

■ **16:00.** Mus txapelketa.

■ **16:30.** Haur jolasak.

■ **18:00.** Buruhandiak.

■ **19:00.** Txokolate jatea izango da. Hau Bonberenea txarangak alaituko du.

■ **00:00.** Kantafloren kontzertua.

■ **Ondoren.** DJ Jokin.

### Urriak 19, igandea

■ **09:00.** Diana herriko txistulariekin.

■ **10:00.** Trikitixa auzoko baserrietan.

■ **11:00.** Meza nagusia auzoko hildakoen alde. Elizkizuna San Frantzisko parrokian izango da.

■ **12:00.** Toka txapelketa gizonezko-emakumeentzat auzoko txarangak alaituta.

■ **14:00.** Auzoko babarrun jatea egingo da. Honen ostean, Goteras tolosarraren omenez, Ttonitor elkarteak berari eskainitako abestia aurkeztuko dute.

■ **Ondoren.** Jaiei amaiera emateko, dantzaldia Koxkorrena orkestrarekin.

## » SAILKAPENA

### Gizonezkoak, orokorra (senior).

1. Asier Cuevas 28'00"  
2. Mohamed Elguarrah 28'25"  
3. Aimad Boujiane 28'37"

### Emakumezkoak, orokorra.

1. Rosi Talavera 33'17"  
2. Alizia Olazabal 34'07"  
3. Carmen Perea 34'25"

### Gizonezkoak, beteranoak.

1. Manu Hurtado 29'51"  
2. Iñaki Lopetegui 30'16"  
3. David Markaida 30'53"

### Emakumezkoak, beteranoak.

1. Rosi Talavera 33'17"  
2. Alizia Olazabal 34'07"  
3. Nieves Zarza 36'41"

### Emakumezkoak, seniorrak.

1. Carmen Perea 34'25"  
2. Amaia Arbillaga 37'53"  
3. Elena Kuzyachenkova 38'51"

### Gizonezkoak, jubenilak.

1. Xabier Saizar 32'29"  
2. Ahmed Amazay 34'00"

### Emakumezkoak, jubenilak.

1. Ane Elizegi 48'40"  
2. Alazne Ezeiza 50'25"

### Tolosaldeko lehenengoak.

1. Elguarrah (Tolosa) 28'25"  
2. Arbillaga (Tolosa) 37'53"

# UEMAk profesional euskaldunen gida osatuko du

**Euskara** » Enpresa bat arduratuko da gidan daudenek euskarazko zerbitzua ematen dutela bermatzez.

## ERREDAKZIOA

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea, UEMA, profesional euskaldunen gida osatzeko informazioa batzen ari da, udal eta herritar euskaldunek profesionalen beharra daukatenean nora jo jakin dezaten. Honela, UEMAk profesional euskaldunen gida berriua eta osatuko du.

Lan hau enpresa batek hartuko du bere gain, hau da, enpresa gidan sartzen diren enpresek baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeaz arduratuko da. Enpresa horrek filtroa egingo du, berak ziurtatuko du profesionalak benetan gai diren euskarazko zerbitzua emateko, gidan sartu aurretik.

## Berritzearen beharra

UEMAk profesional euskaldunen gida osatzeko eta berritzeko ordua dela iritzi dio, eta era horretara, informazioa batzen daude, propio kontratatu den enpresa baten bidez.

Elkargo profesionalak UEMA-

ren gidan sartzeko aukera daukate, baina horrez gain, UEMAk informazio iturriak zabaldu egin ditu. Hartara, Euskal Herriko udal guztietara jo du datuen bila, gidan sartzeko egokiak izan daitezkeen guztiek lekua izan dezaten.

Behin datu guztiak batu ondoren eta ahozko zein idatzizko euskarazko tratua bermatuta, gidan dauden profesionalen zerrenda pasako dute UEMAko udalerrri guztietara: eskualdeetan, hortaz, 14 herrietan.

## Izena emateko aukera

Informazio guztia UEMAren webgunean egongo da eskura, talde bitan banatutako arloetan, uda-

## Datu guztiak batu ondoren, udalerrietara gidako profesionalen zerrenda pasako dute

letarako, besteak beste, arkitektoak, ingeniariak, informatikariak, abokatuak, aholkularitza, kultur zerbitzuak, aisialdi zerbitzuak, kirol zerbitzuak eta informatika-Internet; eta herritarrentzako, margolariak, elektrikariak, iturginak, arrotzak eta igeltseroak. Bestalde, informazioa eguneratzeko sistema irekia izango da, edozein mo-



Argazkian, zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituen dendari bat. HITZA

mentutan profesionalen informazioa gehitu edo aldatzeko.

Profesionalak helbide honetan eman ahal dute izena, zuzenean: <http://www.uma.org/default.cfm?atala=profesionalak>. UEMAk profesionalak animatu nahi ditu zerbitzua euskaraz eskaini eta gidan izena ematera.

Tolosaldean hainbat herri ditugu UEMA sartuta: Ikaztegieta, Baliarrain, Altxo, Alegia, Orendain, Aduna, Irura, Anoeta, Belauntza, Elduain, Orea, Leaburu-Txarama, Lizartza eta Leitza, hain zuzen ere.

**@ Zurea da hitza.** Webgunean duzun atal honetan zure eskualdeko albiste, argazki, kexa, gomendio, esker nahiz bitxikeriak bidali ditzakezu: zuk bidaltzeaz gain, jendeak orain arte bidali dituenak ere irakurri eta ikusi ahal izango dituzu. Beti ere aipamenak edo edukinak iraingarriak badira ez dira onartuko. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK papereko edizioan argitaratu egingo ditu astean zehar. Webgunean, idatzitakoari erantzunak erantsi ahal izango dizkiozu.

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

## ERREFORTZU KLASEAK:

materia guztiak

• Lehen hezkuntza

• D.H.

• Batxilergoa

**HIZKUNTZAK:**

• Ingalera / • Frantsesa

• Itallera / • Arabiera


• Euskara / • Gaztelera

atzeritarrentzat

TALDEKAKO ETA BANAKAKO KLASEAK

ANIMA ZAITEZ,

IRAKASLE EZIN HOBEAK DITU!U!!!







20°  
15°

GOIZA OSTARTEAK  
ARRATS.OSTARTEAK  
BEROENA 20°  
HOTZENA 15°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak**  
**S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai**  
**Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Amezketeta.** Kultura, gizarte ongi-zate eta ingurumena batzordea bilduko da, 20:30ean, balioanitzeko gelan.
- **Ibarra.** Udal bilkura berezia 09:00etan udal batzar aretoan. Arau subsidiarioek eragiten duten gune baten espropiazioa tratatuko dute.
- **Tolosa.** Igandean Iruñean egingo den Nafarroa Oinezera autobusa antolatu dute. Izen-ematea, Galtzaundi Euskara Taldean 11 eurotan (bazkideek 8).
- **Tolosa.** Oargi mendi elkartek Neuville mendira (Pirinioak, 3.092 m) irteera antolatu du astebururako. Izen-ematea, 637 830380 telefono zenbakian.
- **Tolosa.** Ibarra Galtzakomik komiki lehiaketa antolatu dute. Lanak Galtzaundi Euskara Taldearen egoitzan aurkeztu behar dira.
- **Tolosaldea.** Villabona eta Zizurkilgo EAJko afiliatu eta lagun bilerak batzokian 20:00etan.
- **Villabona.** Fleming inguruan eraikitzen ari diren etxebizitza tasatuetarako izena eman daiteke udaletxean

### Erakusketa

- **Ibarra.** Joseba Antxustegietxarteren Euskarazko Komikien erakusketa Benito Izagire kultur etxean 17:00etatik 20:00etara. Egileak komikia nola sortu azalduko du hilaren 16an bertan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



## Agautzera bisita haizetsua egin dute

**ALTZO** ● Altzoko Santillazpi Guraso Elkartek Agautz(974m) mendira antolatu zuen irteera herenegun. Nahiz eta euririk ez egin, nahikoa haize egiten zuen tontorrean, hala diote behintzat han izan zirenek. Horregatik, berehala argazkia atera eta behealdeko txabola batean egin zuten hamaketakoa. Aralarko beste tontor bat ezagutzeko aukera bikaina izan

zuten, beraz, bertaratu zirenek. Horretaz gain, Goierriko zati handi baten eta Aralarko eremu garaienaren ikuspegi paregabeaz gozatu zuten. Geografikoki balio handia du mendi honek baita bere inguruak ere. Artzainen txabola asko ere daude bertan, historian zehar abeltzantzak garrantzi handia izan duenaren seinale. HITZA

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

zure-irragarkia tolosaldetik eta leitzaaldetik euskal herrira

tolosaldeko hitza. **iragarkilaburrak.com**

iragarkia jartzeko: [www.tolosaldeko-hitza.iragarkilaburrak.com/](http://www.tolosaldeko-hitza.iragarkilaburrak.com/) 943-65 56 95/ Araba etorb. 5 atzea • Tolosa / Herriko plaza 1 • Leitza  
webgunean, ostiralero Euskal Herri osoan paperezko edizioan eta HITZA egunkarian argitaratuko da

